

## Oztopo probak, bogan jartzen ari den kirol jarduera

Boga-bogan jartzen ari dira oztopo probak. Lasterka egiteaz gain, bidean dauden oztopo ezberdinak gainditu egin behar izaten dira.

Hamar bat kilometroko probak izaten dira. Bidean, baina, mota anitzeko oztopoak topatu ohi ditu korrikalariak: lasto fardoz estalitako kamioiak, errekek, hesiez inguratutako eremu lokaztuak...

Estatuan barrena urteak daramate halako probak antolatzen; dagoeneko zirkuitua osatuta dago eta baita txapelketa ere, milaka parte hartzaile eta ikusle erakartzen dituena. Gipuzkoan bakarria burutu da, Astigarragan. Maiatzean izan zen, eta ez da erraza proba gehiago inguruan antolatzea. Inguruotan, ordea, lehen postuetan dabiltzan kirolariak dauzkagu.



Axun eta Ismael Mateo, Izaskun Cantabella eta Almudena Carvajal kirolariak.

*Ismael Mateo eta Almudena Carvajal andoaindarrek oztopo probatan estatu mailako onenen artean daude*

Ismael Mateo eta Almudena Carvajal andoaindarrek badakite zer den horrelako probaren bat irabaztea. Axun Mateo eta Izaskun Cantabella ere lehiatzen ari dira. Laurak Ismael Mateok Hernanin gidatzen duen Denontzat gimnasioan biltzen dira: "Gurean ez dago ez makinarik ezta ispilurik; ariketa ezberdinez osatutako zirkuituak eta irudimena erabiltzen ditugu. Oztopo probatan egin behar izaten diren ariketa fisikoetara egokitzen gara. Jarduera hau edozeinek praktika dezakeela iruditzen zaigu, aldamenekoak baino tripa handiagoa edo eta muskulu kaskarragoak ote dituen jaramonik egin gabe".


[KIROLAK, 10. ORRIALDEA]

## Karea, Ortzaikako karobian



Aurreko asteburuan karobia piztu zuten, eta igandeko ekitaldian herritarren aurrean karea ateratzea lortu zuten.

[ANDOAIN, 4. ORRIALDEA]



## Urnieta bizirik, deialdia

Erraustegiaren aurkako mobilizazioekin aurrera jarraitzeko hitzordua ipini dute, ostegun honetarako (urriak 20), 18:00etan San Juan plazan.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

## Azpiegiturak berritzeko hainbat lan martxan, Andoaingo herrigunean

Obra eta lan ezberdinak burutzen ari dira asteotan Andoaingo herrigunean, guztiak ere azpiegiturari loturikoak. **Kaletxikin** udan hasitako obrak bideratu dira eta dagoeneko, Berrozpe

pareko lanak amaituta, berritze lanen bigarren fasean sartu dira. **Zumea** kaleko bus geltoki berria eraikitzez amaitzen ari dira, lehen funtzio hori betetzen zuen eremua zamalaneta-

rako egokituta. Eta egun haue-tan obra berriak martxan jarriko dira. Besteak beste, **Ama Kandida etobidearen** eraberritzea, **Joakin Larreta** espaloia- ren eta kalearen indartzea trenbide

ondoko horma indartuz edota 2014ko urtarrilean **Makaldegian** bota zuten etxola berri batengatik ordezkatzeko. Andoain eraikitze lanetan da.

[ANDOAIN, 6-7. ORRIALDEAK]

### Slack Line munduan zehar

Diaporama Bidaiateka

Urriak 26, asteazkena  
19:00  
Lekaion. DOAN

Xabier Amorrortu

gipuzkoan gazte.eus

943 333 973

gazteinformazioa@urnieta.eus

@gazteinformarieta

GaztegunerUrnietar



## Urnieta Bizirik, deialdia



### Urnieta bizirik plataforma

“Errauskailuaren aurkako ekintza batzuk antolatu genituen 2016ko Sanmieletarako. Urnietan errauskailuak bere aurka joateko zenbat pertsona mugitu izan dituen ikusirik, plataformako kideei herriari bultzada bat emateko aukera aproposa zela iruditu zitzaigun. Bilerak batzuk egin ostean egitaraua osatu genuen eta Udalari aurkeztu genion euren egitarauan argitara zezaten. Hauek hasieran emandako baietzari azken momentuko ezezkoa eman zioten, errebindikazio politikoak direla argudiatuz. Guk erabakia tamalgarrizat jotzen dugu, konfliktu sozial bat delako eta gure osasuna defendatzen dugulako. Argi utzi nahi dugu guk ez dugula alderdi politikorik defendatzen, baizik eta gure osasuna. Horregatik, eta jaietan egindako ekintzek arrakasta izan

zutela ikusirik, deialdi bat egiten dugu datorren urriaren 20an, ostegunarekin, arratsaldeko 18:00etan San Juan plazan errauskailua gerarazteko erabakiak hartu eta erabakitzeke zer bide jarraitu behar dugun denon artean har ditzagun.

Gogoan har ditzagun jaietan egindakoak:

- Irailak 29: Txupinazoan zapi, trentza eta banderolen salmenta, maskarilen eta globoen banaketa eta informazioaren zabalpena.
- Irailak 29: Umeentzako tailerrak San Juan plazan, janari eta edari postua eta baita gazta baten pisua asmatzeko kiniela ere.
- Irailak 30: Rezibatukada Egape ikastolan.

2017rako eta hurrengo urteetako Sanmielak errauskailuak sorturiko kerik gabe nahi ditugulako! Esker mila urnietar guztiei, mugimenduaren parte izateagatik!

### Oharra:

Bestalde, Gipuzkoa errauskailurik gabeko banderolak eskuragarri daude Xauxar tabernan, Goi-mendi garagardotegian, Muazpi harategian, Osane eko eta belar dendan eta Etxaniz burdindegian”.

## EH Bilgunea Lekaion

### EH Bildu Urnieta

“EH Bilduk ostegunerako EH Bilgunea deitu du eta bertara urnietar oro gonbidatu nahi ditu.

Jorratuko diren gaiak hauexek dira:

- Hauteskunde balorazioa.
- Besteak.

Bilera urriaren 20an izango da, ostegunarekin, iluntzeko 19:00etan hasita Lekaion”.

## Poxta Zahar, jaiak igarota

### Poxta Zahar Urnietako elkarte

“Balorazioak egin ondoren, eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen aurtengo festei dagokionez. Lehenik eta behin, azken hilabete hauetan horrenbeste batu gaituen eta gurekin batera txozna batzordea osatzen duten Asketa eta Egape dantza taldeari, oztopoen gaineratik herrian bizi-poza sortu duen egitarau oparora aurrera eramaten laguntzeagatik. Bestalde, eskerrak eman gure egitarauan parte hartu duzen talde zein herritar guztiei, zuek gabe hau ez bailitzateke berbera

izango. Bestalde gure babes guztia Urnietan sortu den Urnieta Bizirik plataformari hauek ere a zer lana egiten ari diren osasunaren alde. Azkenik, eskerrak eman urte luze hauetan Poxta Zaharrek antolatutako ekintzak bultzatu dituzuen guzti horiei, taldean aldaketak eman arren, herrian giro ona, *-ikearritzko ambientia-*, sortzea lortu baitugu. Bukatzeko, jakinarazi nahi dugu gonbidatuak zaudetela, gazte zein heldu, herri honetan antolatzen diren ekintza guztietan parte hartzeraz zein antolatzeraz. Besarkada bero bat”.

Matrikulazio epea zabalik dago Arantzubiko eskola zaharrean

## Ludoteka zabalik dago



5-11 urte bitarteko haurrei zuzenduriko zerbitzua da.

Ludoteka astelehenetik irekita dago, Arantzubiko eskola zaharrean. **Aitziber Uranga** eta **Ahetze Etxeberria** hezitzaileekin, 5-11 urte bitarteko haurrek jolas hezitzaileen bidez ondo pasatzeko txokoa egokitu dute. Astelehenetik ostegunera, 17:00 eta 19:00 artean egoten da irekita eta, denbora horretan, gazte-txoek nahi dutenean sartu eta ateratzeko aukera dute.

Tailerrak, eskulanak, jolasak..., denetik egiten dute. Hezitzaileek adierazi dutenez, giro ederrean aritzen dira jolasean eta “oso ondo” pasatzen dute. Joko hezitzaileak dituzte oinarri eta ekintza eta eskularen bidez, gai ezberdinak lantzen dituzte. “Ludotekan balio hezitzaileak transmititzen diz-

*Giro euskalduna dute eta euskaraz hitz egin ez ezik, ludotekak jende berria ezagutzeko aukera ere ematen du*

kiegu. Egunaren amaieran, esaterako, materiala denon artean jasotzen dugu, umeek ulertu dezaten dena erabili dezaketela baina jaso ere egin behar dutela”, azaldu du Ahetzek. Giro euskalduna dute eta euskaraz hitz egin ez ezik, ludotekak jende berria ezagutzeko aukera ere ematen du.

Egunean hogeita hamar haur inguru izaten da bertan: “Eguraldi txarrarekin haur gehiago

etortzen dira. Eskolaz kanpoko ekintzek ere eragin handia dute; izan ere, adin batetik aurrera ekintzak izaten dituzte eta ez dira ludotekara horrenbeste etortzen. 5 – 8 urte bitarteko haurrak dira gehienak”, azaldu dute. Instalakuntzei dagokienez, gela bat baino gehiago dituzte jolasekin horniturik: mahai jolasak, margoketarako materiala, etxe handia, psikomotritate gela... Hezitzaileek urnietarrei ludotekara gerturatzeko deia luzatu diete.

### IZEN-EMATEA ZABALIK

Ludotekan bertan egin daiteke, urriaren 29ra bitarte. Horretarako matrikulazio orria bete eta 10 euro ordaindu behar dira.

Buruntzantzan taldeak antolatuta, Saroben egun osoan zehar

## Larunbatean, Batusalsa

Buruntzantzan taldeak “Batusalsa” ospakizunaren edizio berria antolatu du. Larunbat honetan egun osoan zehar Saroben jarduerak antolatu dituzte. Batukada eta dantza zaletu guztiak gonbidatuta daude:

### Urriak 22, larunbata Sarobe

11:00-13:00 Birzibatukada 14 urte arteko gaztetxoentzat.

16:30-19:30 Kubako saltsa tailerra.

20:00-21:30 Son Kanela taldea zuzenean.



“Batusalsa” larunbat honetan Buruntzantzan taldearen eskutik.



URNIETAKO UDALA SANMIELETAN ETA XOXOKAN IZANDAKO PARTE HARTZE HANDIAREKIN POZIK AGERTU DA

# Aurtengo jaien arrakasta ulertzeko ardatz nagusiak

Urnietako Udalak aurreko ostiralean jaien balorazioa egin zuen kazetarien aurrean. Pozik agertu dira jaiak giro ederrean eta parte hartze handiarekin igaro direlako.

Ezbeharririk ez da izan, gainera. Balorazio baikorra egin dute Xoxokako jaien inguruan ere. Aurtengo jaien arrakastaren ardatz nagusiak honako hauek dira:

## 1. Jaiak bakean

### Eraso sexistarik ez da izan jaietan

Udalak aurten kanpaina berezia egin du beste herri askotan gertatu diren eraso sexualak saihesteko. Jaiak iraun bitartean ez da erasorik izan, eta hori Udalarrentzat "zoriontzekoa" da.

## 2. Parte hartzea

### Urnietarrek bat egin dute jaiarekin

Herritarren parte hartzea handia izan da eta, horri gehituta, hitzordu batzuetara inguruko herrietako pertsona ugari hurbildu da.

## 3. Txosna eremua

### Jaien erreferentzia nagusia da

Karpagunea jaietako erreferentzia nagusi bilakatzen ari da, bereziki otorduetarako eta zuzeneko emanaldietarako. Otorduetara, esaterako, ehunka lagun hurbildu da patata tortilla lehiaketara edota Iñistor jaira. Emanaldietara ere askotxo hurbildu dira, bereziki larunbat gaueko kontzertura.

## 4. Erakargarria

### Egitarauak kanpokoak erakarri ditu

Urnietarrentzat ez ezik, Sanmielak erakargarri bilakatzen ari dira inguruko



Funky taldeko dantzariak irailaren 28an, jaien hasierako ekitaldian.

herrietako pertsona askorentzat. Larunbat gaueko kontzertura, esaterako, inguruko herrietatik jendetza hurbildu zen. Baina baita igande arratsaldeko ekitaldietara ere.

## 5. Egitarau trinkoa

### Sanmielak bost egunez jarraian

Jaiak asteburu bakarraren bueltan egitean, hitzordu guztiak bost egunetan pilatu dira. Udalarrentzat hori onerako izan da, "jaiak intentsitate handiz bizituko aukera izan baita".

## Txanponaren bestaldea

### Jaiak antolatzearen zeharkalteak

Udalak balorazio baikorra egitearekin batera, kontuan hartzen du hainbat hitzorduk bizilagunen artean sortzen duten eragozpena. Jaiak antolatzearen zeharkalteak dira. Horiez gain, Udalak jaiotan gertatu diren bi gertaerekiko kezka agertu du, etorkizunerako onbidatu nahiko lituzkeenak:

### Adin txikikoak

Udalarrentzat kezkarria da aurtengo jaietan adin txikikoen artean ikusi diren

hainbat egoera, gehiegizko kontsumoak eraginda. Egoera horiek saihestea, datorren urterako erronka modura hartu dute.

### Zarata, ordutegiz kanpo

Patata tortilla txapelketa osteko DJ saioa nahi baino gehiago luzatu zen. Itxuraz, argindarra eteteko instalakuntza zizilatu egin zuten ezezagun batzuk eta musikak baimendutako ordutegia gaititu zuen. Udalak horrelako gertaerak etorkizunean errepika ez daitezkeen txosna eremuko elkarrekin bilera deitu du.

## 2017ko balizko egitaraua

Aurtengoaren bidetik antola liteke datorren urteko Sanmieletako egitaraua. Honakoa izan liteke 2017rako egitarauaren oinarria:

- Irailak 27, asteazkena: Txupinazoa.
- Irailak 28, osteguna: Haurren eguna.
- Irailak 29, ostirala: San Miguel eguna.
- Irailak 30, larunbata: Koadrilen eguna.
- Urriak 1, igandea: Baserritarren eguna.

## Xoxokako jaiak

Udalak, jaien antolaketan laguntzaile modura, Xoxokako jai batzordekideen lana zoriondu egin du. Xoxokan ere urnietarrek eta inguruetako herritarrek erakarri dituzte festara. Bereziki nabarmena izan zen hori ostiral goizeko sega apustuan eta arratsaldeko zaldi lasterketan.



Xoxokako jaiak eta Sanmielak gogoan

Argazki eta bideo sorta zabala:

Aiurri.eus webgunean ikusgai



AURREKO ASTEBURUAN ANDOAINEN KAREA IRAGAN MENDEAN BEZALA EGITEA LORTU ZUTEN

# Karea egiteari berrekin diote Ortzaikako karobian

Azken hamar urteetan karobia piztera ohituta zeudela, Burdina taldeak urrats handia eman zuen igandean. Asteburu osoko lanaldia-oren ostean, kare bizia ekoiztu zuten lehenik. Eta ondoren, urarekin

nahasiz, eraikuntzarako erabiltzen den masa egin zuten. Ehundik gora bisitari eta herrikide izan ziren gertaera hori beren begiekin ikusi zutenak. Pribilegio hutsa, Burdinakoen esanetan.

Kea zerion kare bete pala lurrean ipini eta **Joxerramon Berrondok** ekitaldira hurbildutakoei Burdinarentzat balio handiko iragarpena egin zien: "Hemen duzue atera berri, karobitik lortutako karea". Instante horretan laburbildu zen hogeita lau orduko lanaren emaitza, larunbat goizean karobia piztearekin abiatu zena. Karea lortu izana balio handiko ekintza sinbolikoa da. Ez da gutxiagorako, 1920ko hamarkadan galdu zen karea egiteko ohitura ia ehun urte ondoren berreskuratzea lortu baitzuten.

Egun handia, beraz, iragan mendeko ogibideak eta tradizioak gogoko dituztenentzat. Eta ez bakarrik andoaindarrarentzat, Andoaingo ekitaldira Gipuzkoako hainbat aditu eta zaletu hurbildu zelako. Baita Eitb-ko albistegietako kideak ere, zeintzuk eguerdian bertan Ortzaikatik bertatik albistea eman zuten.

## BOLUMEN HANDIKO LANA

10 m<sup>3</sup> pago, m<sup>3</sup> bat gehiago akaziena eta beste m<sup>3</sup> bat kare-harria. Osagai horiekin karobiak duen 6,20 metroko luzerako hodia betetzen joan ziren. Zotzak, ezpalak eta egurrak, hurrenez hurren. Hodia betetzeko metro bat falta zela, hutsunea akazien azalarekin bete eta indarra eginez zanpatu egin zuten. Kare-harria bota zuten orduan, eta sua ematen hasi. Lau orduro sua piztuz, hodia hustu ahala akazien azalarekin eta kare harriarekin betetzen jarraitu zuten. Langintza horretan Josexo Crespo Altsasuko harginak lagundu zien. Igande eguerdiko ekitaldian, bisitarien aurrean eta bero-bero zegoen hodiaren ahoan jarrita, harri-pikatzaile lanetan aritu ziren. Karea lortu zuen, harria lurtean joz. Burdina eta antzeko taldeentzat urrats garrantzitsua izan zen aurreko asteburukoa, iragan mendeko ogibidea biziberitzea lortu zutelako.



Hamar urte dira Ortzaikako karobia martxan jarri eta pizten hasi zirenetik. Aurten, ordea, lehen aldiz karea ekoiztea lortu dute.

## ION BELOKIREN BERTSOAK

*Kontuan hartu beharra degu honek daukan balorea, nahiz ta arbasoek nola eiten zuten gaurdaino baden aldea. Garrantzitsuna halare ez da, hontaz hitz eitea ordea. Zuek guztiok bildu zerate ejenplu hau ikustera, atzo piztu zen kare harritik gaur sortu degu karea.*

*Ta ezin utzi aipatu gabe gure Burdinan izena. Boluntariok lanen aituta aurrera eramaten dena. Hau piztu dute ta berreskurau galdua zen oroimena, hau itzaltzean emango digu igual gu guztiok pena. Baina itzaltzean oroituko dugu Joxe Pauloren izena.*

## ARGAZKIAK, BIDEOAK

[www.aiurri.es](http://www.aiurri.es)



Alvarez anaiak karobiaren hodi bero-beroari begira, igande eguerdiko ekitaldian.



Kare bizia lortu zuen Josexo Crespo harginak, harria lurtean joz.



Larunbat eguerdian piztu zuten karobia, kea eta usaina herrigune osora zabalduz.



Asteburu osoan zehar bisitari ugari hurbildu da Ortzaikako karobira.



AINHOA AIERTZA ANTOLAKETA TALDEKO KIDEARI ELKARRIZKETA

# Hodeiren aldeko elkartasun jaialdia, larunbat honetan

Larunbat honetan izango da "Hodei Olaizola lagundu" taldeak antolatutako duen elkartasun ekimen nagusia, ikuskizuna eskainiko baita Basteroko auditorioan goizeko 11:00tan hasita.

Gala modukoa izango da, herriko eta kanpoko dantzari, kantari edota bertsolariekin. Ainhoa Aiertza ESCIViKO irakaslea antolaketaren taldeko kideetakoa da.

**Larunbateko jaialdia iristear da, ikuskizunaz zer aurrera geniezaioke joateko asmoa duenari?**

**Ainhoa Aiertza:** Herriko hainbat elkartetan eskainitako ikuskizuna izango da, musika, dantza eta bertsoa dituena. Horrez gain, laguntzaile izan diren dendari, herritarrei, Udalari... eskerrak emateko tarte hartuko da. Sorpresak egongo dira; Hodeiri eskainitako ikus-entzunezko batzuk eta ikustera bertaratu direnentzat opariak. Beraz, ikuskizunaz gain, balio erantsia emango dioten ezustekoak egongo dira.

**Zein aurreikuspen egin duzue? Non erosi daitezke sarrerak?**

**A.A.** Auditorioa betetzetik gertu bageunde, oso gustura geratuko ginateke. Sarrerei dagokienez, ostiralera arte udal-etxe Atarian eta Urrats inprimategian egongo dira eta, egunean bertan, Basteroko leihatilan jarriko dira salgai 10:15ean. Parte hartzaile guztiak musustruk arituko dira, beraz, takilatik lortzen dena oso-osorik Hodeirentzat izango da.

**Bultzada handia ematen ari zarete Andoaindik. Zer nolako dinamika dago ikuskizunaren antolakuntza aldetik?**

**A.A.** Lantaldea ez da oso handia, hamar lagun ingurukoa. Lanak banatu egin ditugu eta gu komunikabideez, azpiegitu-



Aiertzaren arabera, "jendearen erantzuna oso ona izaten ari dela azpimarratu beharra dugu".

raz eta taldeekin harremana izateaz arduratu gara, proiektuari hasiera San Juan Bautista zahar egoitzako langileek eman ziotela ahaztu gabe. Ikuskizunaz gain, beste bide batzuk jorratu ditugu:

zozketak, itsulapikoa... Toki ezberdinetatik ahalik eta diru gehien biltzea izan da helburua. Horretarako, herriari begirako lehen pausoa irailaren 24an eman genuen, Andoaindarra Euskaraz egune-

*Ikuskizunerako sarrerak Atarian eta Urratsen salgai egongo dira eta egunean bertan Basteroko leihatilan, 10:15ean hasita*

an. Bigarren urrats handia larunbatean emango dugu. Lanean talde txikia ari gara, baina jende asko inplikatu da eta jendearen erantzuna oso ona izaten ari dela azpimarratu beharra dugu.

**Hodeiren familiarekin harremanetan zaudete, nola sentitzen dute asteotan Andoaindik egindako lana?**

**A.A.** Erreterian bizi direnez, Hodei zuzenean ezagutu gabe Andoain herriak izan duen erantzuna asko eskertu dute. Behin eta berriz esaten dute oso eskertuta daudela, eta ez zutela espero. Andoainen hutsetik horrelako proiektua sortu eta herritarrek nola jokutzen ari diren ikusita, sinetsi ezinik daude.

**Beste urratsik emango al duzue?**

**A.A.** Denbora gutxian asko lortu dugu eta gure asmoa honekin amaitzea da. Sokak jarraipena Erreterian izan dezake, Eguberrietarako zerbait egitea pentsatzen ari baitira. Hango alkatearekin eta musika eskolarekin harremanetan gaudenez, gure laguntza eskainiko diegu.

## Hodei Olaizola lagundu

**MUSIKA JAIALDI BIKAINA:**

Joseba eta Bakartxo dantza eskola,  
Urki euskal dantza taldea, Zumba, Lorratzak,  
Klaap dantza taldea, Sevillana taldea, bertsolariak.

*Urriak 22, larunbata.*

11:00. BASTERO. ANDOAIN

Sarrera: 5 €.

Salgai: Ataria Udal zerbitzua  
eta Urrats inprimategia.



LAGUNTZA EMATEKO

(Laboral Kutxa):

ES87-3035-0026 21 0260075543.

Informazio gehiago:

hodeiolaizolalagundu@gmail.com.



ERABERRITZE LANAK KALETXIKIN, AMA KANDIDAN, MAKALDEGIAN, ZUMEA EDOTA JOAKIN LARRETA KALEETAN

# Azpiegitura lan ugari batera Andoaingo herrigunean

Udazken honetan herrigunean zehar hirigintza alorreko hainbat lan martxan jarri dituzte, batik bat azpiegiturak berritzeari loturikoak. Kaletxikiko lanekin hasi ziren uda partean, eta dagoeneko lanik han-

diena egina dago. Tamaina handiagoko obra izango da Ama Kandidakoa, errepidea estutu eta biribilgunea eraikiko dituztelako. Horrez gain, Joakin Larretan eta Makaldegian ere lanak hasita daude.

2016ko Udal aurrekontuak onartzearekin batera, inbertsio plana eta eraberritze lanak martxan jarri ziren. Udal gobernu taldetik Ana Carrere alkateak airtortzen duenez, "lehentasuna eman diogu azken urteetan egin behar izan ziren lanei, esaterako, ur hoditeria zaharkituaren eraberritzeari eta ur pasabideak hobeto kontrolatzeko balbulak txertatzeari. Lan horiek, behin amaituta, ez dira ikusten baina garrantzia handikoak dira. Hoditeria berritzen joan garen heinean, adibidez, galdutako ur kopurua murriztuz doa eta horrek Ur kontsultarioari ordaindu beharreko diru kopuruan eragin zuzena du. Aurreztuko duguna kopuru handia izango da. Milaka euroz hizketan ari gara".

## Ama Kandida

**Errepidea estutu  
eta bidegorria ipini**

Hasiera: 2016ko urria.

Martxan: 2017ko martxoa.

Aurrekontua: 315.000 euro + BEZ.

Bazkardon, Buruntza tailerrak dagoen aldean hasi eta Martin Ugalde kultur parkeraino doan etorbidea eraberritzen hasiko dira laster, konponketa lan ezberdinen bitartez: Espaloi ugari berrituko dituzte, errepidea estutu eta bidegorria eraiki. Helburu nagusia etorbide hura herri barruko errepide bilakatzea da, abiadura motelduz eta arriskuak saihestuz. Bide batez, hartutako neurriekin, zarata akustikoa eta kutsadura murriztuko dira.



Ana Carrere alkatea eta Agustin Alberro Hirigintza, Obrak, Ingurumen eta Landaguneako zinegotzia Ama Kandida etorbidean. Astelehen goizean topografoek errotonda edo biribilgunean ipini zituzten markak ikus daitezke argazkian, zoruaren margotuta.

Andoaingo gainerako eremuetan egin bezala, Ama Kandidan ere argiteria azpiegitura berritzeari ekingo diote. Kasu honetan, bereziki, lehendik zeudenak baino farola gehiago ipintzeko asmoa dute.

Eraberritze lanak biribilune edo errotonda eraikiz hasiko dira, Berrozpe etxearen parean. Lanik zailena horixe delako. Bestalde, langile eta bizilagun askoren pasabide delako, Martin Ugalde kultur parkearen parean semaforoa

eta zebra-bidea jarriko dituzte. Unanue etxearen parean ere espaloia zabaltzeko asmoa dute.

Auzunean, oro har, eta bizilagunek eskatuta, zebra-bide gehiago ipiniko dituzte.



Ibilgailua ikusten den horretan semaforoa eta oinezkoen pasabidea jarriko dituzte.



Bidegorria Buruntza tailerrak hasten den toki horretan bertan ipiniko dute, Berrozpe aldera.



## ERABERRITZE LANAK KALETXIKIN, AMA KANDIDAN, MAKALDEGIAN, ZUMEA EDOTA JOAKIN LARRETA KALEETAN



Lanik handiena errepidea eta espaloia eusten duten horma indartzea izango da.



Urriaren 25ean hasi eta obrak amaitu arte, merkatu azoka Goikoplazan egingo dute.

## Joakin Larreta

**Oinezkoentzat eta gidarientzat arriskua saihestea helburu**

Hasiera: 2016ko urria. Martxan: 2017ko martxoa.

Aurrekontua: 372.000 euro + BEZ.

Errepidea eta espaloia eusteko horma indartzeko lanak aurreko astean abiatu ziren, trenbide sareari itsatsitako eremuan. Kale Nagusitik Joakin Larretara doan eskailera bota eta berria eraikitzeaz gain, herritarren begietara ez da ikusgarritasun handiko lana izango, lanik esanguratsuenak hormaren azpial-

dean egingo direlako. Hormigoiarekin indartuko dute. Bide batez, lanei ekin dietela baliatuta, argiteria eta hoditeria azpegitura zaharkitua berritzeari ekingo diote. Behin lanak amaituta, oinezkoen espaloia zabalagoa geratuko da. Kanean zehar ere zebra-bide gehiago jarriko dituzte.

## Makaldegia

**200 m2ko hedadura izango duen aterpe berria eraikiko dute**

Hasiera: 2016ko urria. Martxan: 2016ko abendua.

Aurrekontua: 75.000 euro + BEZ.

2014ko urtarrilean Udalak Makaldegia edo Merkatu plazako burdinezko eraikuntza zaharkitua kendu zuen, egoera kaskarrean zegoelako. Lan horiei ekitean, beste bi gehiago egin zituzten: Bertatik igarotzen zen ur zikinaren ubidea konpondu eta lurrazpiko edukiontzietarako zuloak hormigoiz betetzea.

Laster hasiko dira lanak, 200 m2ko hedadura izango duen aterpea aurreikusten duena. Lanak egin bitartean, tresneria gordetzeko aparkaleku batzuk denbora batez erabiltezin izango dira. Urriaren 25ean hasi eta lanek iraun bitartean astearteko eta larunbateko azoka Goikoplazara mugituko dute.



Kaletxikiko plazatzoko lanak amaituta, eraberritze lanak Goikoplazako aldapan gora egiten ari dira.



Laster zabalduko dute bus geltoki berria, zaharraren tokia zamalanetarako egokituta.

## Kaletxiki

**Berrozpe pareko lanak amaituta, bigarren faseari ekin diote**

Hasiera: 2016ko uztaia.

Martxan: 2016ko azaroa.

Lehen fasea ezustarekin abiatu zen, Berrozpe pareko lur zorua ez zelako irmoa. Aurreikuspenetik kanpo, lurrez bete behar izan zuten eta horrek lanak luzatzea ekarri zuen.

Lanik handiena amaitu dela esan daiteke, eta orain bigarren fasean sartuta daude. Auzunetik Goikoplazara doan aldapan, zehazki, hoditeria eta azpiegitura zaharkitua berritzen ari dira.

## Zumea kalea

**Bus geltoki berria laster zabalduko dute, aurrekoa zamalanetarako utziz**

Hasiera: 2016ko iraila.

Martxan: 2016ko azaroa.

Zumea kalean, Tolosako norabidean, bus geltokia metro batzuk mugiarazi dute Eroskiren pareraino. Haren ondoren zamalanetarako gune berria egokitu dute. Asteburuan martxan izango dira.

Eta orain arte bus geltoki funtzioa betetzen zuen eremua zamalanetarako erabiliko da. 14:00etatik aurrera, herritarrek gune hori ibilgailua aparkatzeko erabili ahal izango dute.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



**Gipuzkoako**  
**Foru Aldundia**  
Euskara Zuzendaritza







Kultur aniztasuna sustatzeko ekimena, azaroaren 13rako

## Bizilagunak egitasmoa



Andoainen ekimena sustatu duten eragile ezberdinetako ordezkariak.

**SOS Arrazakeriak** antolatutako ekimenak bertako eta kanpoko arteko elkargunea sortu nahi du, azaroaren 13an egingo diren otorduen bidez, harremanak sortu eta elkar ezagutzeko. **Bizilagunak** egitasmoarekin bataiatuta, aurtengoa bosgarren edizioa da.

Hizkuntza eta sinesmenak trukatzeko aukera ematen du, gertuko giroan: "Askotan gure bizilagunak atzerritarrak izaten dira, baina ez gara pausoa ematera ausartzen. Aukera ona da elkar ezagutzeko eta aurreiritziak apurtzeko", azaldu du **Tarana Karim** kideak.

**Iñaki Otamendik** bi urtetan hartu du parte eta "oso esperimentzia polita" dela aitortu du. Gainera, haurrentzat "oso positiboa" dela gaineratu du,

aniztasuna naturaltasunez ikusten dutelako: "Oso ohituta gaude gure zirkuluetan ibiltzen eta atzerritarrei gurekin harremanetan hasteko aukera gutxi ematen diegu". Etxean sortzen diren elkarrizketak "oso interesgarriak" direla eta, lotsa alde batera utzita, andoaindarrei parte hartzeko gonbidapena egin die.

### JAIALDIA AZAROAREN 26AN

Bazkarietatik harago, familia guztiak azaroaren 26an Victoria Eugenia antzokian bilduko dira: "Jai handia izaten da eta proiektuak hartu duen dimentsioa ikusteko baliagarri da". Parte hartzaileez gain, kirolariak ere bertan izango dira; izan ere, aurten kirol munduko pertsona ezagunen irudia

erabili dute Bizilagunak ekimena bultzatzeko.

"Kirola inklusiorako oso tresna garrantzitsua da, bertan elkartzen direlako mota ezberdinetako pertsonak", adierazi zuen **Ana Carrere** alkateak aurkezpen ekitaldian. Hori dela eta, Andoainen **Banaiz Bagara**, **Caritas** eta **Hurria Sahara** elkarteek bezala kirol ordezkariak ere bat egin dute ekimenarekin. Urtetik urtera familia gehiago gehitzen ari dira programa honetara. Lehengo urtean 214 bazkari egin ziren Gipuzkoa mailan, guztira 2500 lagunek parte hartuz.

### IZEN EMATEA:

www.mugak.eu  
sosarrazismobizilagunak@gmail.com  
943321811

Larunbat honetan mahai informatiboa ipiniko dute

## Katxalin elkartearen kanpaina Andoainen

**Katxalin** bularreko eta ginekologiako minbiziagatik eragindako Gipuzkoako emakumeen elkarteak aurtengo kanpaina aurkeztu zuen, Bularreko minbiziaren kontrako nazioarteko egunaren atarian. Larunbat honetan Andoainen mahai informatiboa ipiniko dute.

Katxalin elkartearen lehendakari Txaro Beobidek "bizi ohitura osasungarrien eta aldian behingo azterketen garrantzia" nabarmendu zuen, "horiek direlako bularreko minbiziari aurre hartzeko modurik onenak".



Zuena Andoaingo elkarteak bat egin zuen aurreko asteburuko elkartasunezko lasterketarekin, Donostian antolatu zutena.

## 1959an jaiotakoen bazkaria

59an jaiotakoen bazkaria datorren azaroaren 19an izango da Txertota jatetxean, eguerdiko 14:00etan hasita. Antolatzaileek adierazi dutenez, "joan nahi duenak aza-

roaren 16a baino lehenago 60 euro ingresatu beharko ditu ondorengo kontu-korronte zenbakian: ES73 2095 5022 18 1060843686".

## Andoaindarren parte hartzea Nafarroa Oinez



Urki dantza taldeko kideek saioa eskaini zuten bigarren eremuan.



Axeri dantza taldeko kideak laugarren eremuan dantzan aritu ziren.



Bolondresak lan eta lan, Karmen Rodriguez Ranzek sustaturiko ekimenari esker.

Andoaindik kultur eragile ezberdinak abiatu ziren aurreko igandean Vianara, Nafarroa Oinez parte hartze- ra. Urki edota Axeri dantzako kideez gain, Lorratzak eta Alberto Agirre abesbatza ere kantari aritu ziren. Bolondres lanetan aritu ziren beste herrikide batzuk.

### ESKERTZA

"Urkiren eta Vianako ikastola-ko zuzendaritzaren izenean bihotzez eskertu nahi dugu dantzan, kantuz, txosnan lanean, garbiketean, ibilibidea osatzen, kamisetak edota kontserbak erosten aritu zirenei. Baita Udalari erei, autobusarekin emandako laguntzagatik".





## KIROL ALBISTEAK

# Oztopo probatan trebatzen ari diren kirolariak

Oztopo probei dagokinez, aurreko maiatzean Astigarragan Eternal Running Invencible izeneko proba antolatu zuten. Inguru hauetan dagoen bakarra da. Eta, aldiz, bertako kirolari batzuk oztopo proba-

tan benetako espezialista bilakatzen ari dira. Ismael Mateo edota Almudena Carvajal andoaindarrak onenen pare dabilta estatu mailako probatan.

[LEHEN ORRIALDETIK DATOR]

**Almudena Carvajalek** Madrilen eta Bartzelonan Eternal Running probak irabazi ditu, eta **Ismael Mateo** aurreko igandean Bartzelonan egindako proban bigarren sailkatu zen. Podiumera igotzen ohitura hartzen ari dira biak. Mateo batez ere, Badajoz, Loiu edota Galdakaoko probatan lehenengoan artean sailkatu baita.

*“Proba hauetan ez zoaz erlojuari begira. Lasterketa abentura oso bihurtzen da”*

*Ismael Mateo*

Kirola eginez ondo pasatzeko aukera eskaintzen duen modalitatea dela dio Ismael Mateok. “Urteak egin ditut lasterketa tradizionaletan, errepidean edota mendian. Errutinan erortzen zara azkenerrako. Orain bizpahiru urte deskubritu nituen proba berezi horiek, eta geroztik izugarri zaletu naiz. Ez zoaz erlojuari begira, lokatzetan zikindu edo errekan bustiko zaizulako. Lasterketa abentura oso bihurtzen da. Traba bat gainditu ahala, zer datorkizun jakin gabe egiten duzu aurrera”.

**Axun Mateok** zehaztu duenez, ez daude bi proba berberak direnak: “Oztopoak nahiko antzekoak izan arren beti, lekura moldatzen dira; kontuan hartzen dute ibairik ba ote den, mendirik... Antolaztaileek ezustearen faktorearekin jokatzen dute, eta lasterkariak egunean bertan jakiten dute nondik nora eta zein baldintzatan ibili behar duten”.

Lagunarteko giroan egin badaiteke ere, maila fisiko ona duenak abantaila duela aitortu du **Almudena Carvajalek**: “Fisikoki prestatuta joan beharra dago. Dena den, beste kirolean ikusten ez dugun dibertsioa eskaintzen dute, eta gainera, paregabea da parte hartzaile guztien artean bizitzaren den giroa”. Eternal Invencible probatan aisia eta lehia biak uztartu daitezke, berdin-berdin: “Denetik dago parte hartzaileen artean: batzuk lehiakorrek dira, eta beste batzuk soilik ondo pasatzera doaz. Denek ere, batzuek zein besteek, proba bakoitza erronka pertsonal moduan hartzen dute”.



**Almudena Carvajal maila bikaina erakusten ari da kirol jarduera berri honetan.**

### Zer dela eta hasi zinen oztopo probetan?

**Almudena Carvajal.** Ez nekien zer ziren oztopo probak, orain dela oso gutxi arte. Probatzeko eta probatzeko esanez berotu egin ninduten. Madrilera joan, eta hara non, lehen postua lortu! Hirugarren postuari heldu nion lasterketaren zatirik gehienean, baina kilometro eta erdi gertatzen zenean, berriro ere oztopoak jarri zizkiguten, eta hantxe lortu nuen aurretik zihoazenak gainditzea. Egia esanda, probatzera joan nintzen, baina azken kilometroetan, denok barruan daramagun lehiarako harra irten zitzaidan...

### Lehendik ere lasterka ibilitakoa zara.

**A.C.** Zer edo zer bai, baina ez asko, oso modu herrikoian baizik ez. Lasterketa

*“Nire neurrirako kirola deskubritu dudala esango nuke, gauza askoren konbinazio perfektua baita”*

*Almudena Carvajal*

txikietan parte hartu izan dut Zumeatarra elkarteko lagun batzuekin, baina Behobiaren pareko ibilbide luzeetara iritsi gabe. Orain, gimnasioan ez ezik, Belkoain, Goiburu, Adarra, Onddi eta antzeko mendi parajeetan aritzen naiz, entrenamendu gisa.

### Zergatik egiten zaizu erakargarri?

**A.C.** Kirol ugari praktikatuta izan ditut nire bizitzan, eskubaloia (Leizaran taldea), igeriketa (Buruntzaldea IKT taldea), ae-

robika, body combat..., baina esango nuke nire neurrirako kirola deskubritu dudala, gauza askoren konbinazio perfektua baita. Gorputz osoa lantzen duzu, eta horrekin erresistentzia, fondoa, arintasuna, indarra... Lasterka ari zara, baina aldi berean oztopoak gainditzeko erronkak dauzkazu aurrean.

### Hemendik aurrera, zeure buruari gehiago exijituko diozu, ala?

**A.C.** Hortxe dago presioa, lasterketak irabazi izanagatik batik batik. Hurrengo probatara gozatzeko asmoz joango naiz. Pertsonalki, ahal dudana gehiena eman nahi nuke. Ez nuke etxera itzuli nahi eman nezakeena baino gutxiago eman dudala pentsatuz.





## KIROL ALBISTEAK

Igande honetan Nafarroako Sakana aldera egun osoko irteera

# Zanpatuz taldearen mendi irteera, igande honetarako

Irañeta herrian hasiko da txangoa, eta handik, mendizaleek 1.300 metroko garaiera irabaziko dute. Euskal Herriko erdigune geografikoa ezagutzea da asmoa: Andia mendilerroan (Nafarroa) barrena Beriain tontor ezagunera osteratxo eginez (1.493 m.).

Beriain edo San Donatoko ermitan bazkaltzeko aurreikuspena egin dute, norberak berarekin eraman beharko duen otordua. Bukatutakoan, Iherbain erpina gainditu (1.428 m.), eta Unanu herriraino jaitsiko da taldea, bertan autobusa hartu eta Urnietara

bueltatzeko. Hitzordua igandean goizeko 08:00etan ipini dute, Matxo taberna aurrealdean.

Izena emateko epea urriaren 20an bukatuko da, eta izena emateko zerrendak Kantoi eta Xauxar tabernetan, eta Ikasmin akademian egongo dira.

Hamabost kilometroko lasterketa Donostian, aurreko igandean

# Eskualdeko partaidetza Robers klasikan

## ROBERS KLASIKA

2016-10-16 DONOSTIA. 15 KM

### ANDOAIN, LASTERKARIAK

#### Gizonezkoak:

Iturralde, Jon	00:52:50
Mujika, Iker	00:54:53
Eguren, Mikel	00:57:07
Carrasco, Angel	00:58:53
Elvira, David	01:00:05
Imaz, Jon	01:02:17
Askarai, Martin	01:02:43
Rosco, Alberto	01:03:07
Rodriguez, Alfredo	01:02:58
Marques, Gustavo	01:05:43
Agredano, Dioni	01:07:36
Guzman, Iñaki	01:07:38
Mujika, Aritz	01:07:23
Rabadan, Igor	01:08:13
Nieto, Patxi	01:08:49
Lopez, Alberto	01:09:47
Lavado, Jose	01:13:18
Lopez, Luis	01:14:19
Hernandez, J.Manuel	01:15:33
Aranburu, Iker	01:15:10
Olazaguirre, Igor	01:17:11
Morenos, Unai	01:15:56
Merino, Mikel	01:17:57
Martinez, Unai	01:16:25
Dieguez, Unai	01:18:10
Alkorta, Peio	01:18:43
Miguel, Enrique	01:19:58
Rabadan, Aritz	01:21:07
Cuartango, Aitor	01:21:55
Valdecantos, Juan Pablo	01:22:19
Azpiroz Iriarte, Unai	01:22:28
Moreno, Iñigo	01:22:29
Diaz, Ricardo	01:23:11
Vicente, José Ignacio	01:24:17
Conde, Mikel	01:34:19



Behobiarako proba modura egiten den lasterketa da.

#### Emakumezkoak:

Lacalle, Amaia	01:10:49
Jauregi, Irene	01:18:43
Poza, Itziar	01:19:02
Goikoetxeaundia, Marijo	01:18:44
Gonzalez, Araitz	01:19:19
Valdecantos, Marian	01:22:39
Beraza, Igone	01:24:16
Nuñez, Mari Jose	01:27:10
Amotxategi, Garbiñe	01:33:48
López, Maria Isabel	01:33:48
Conde, Raquel	01:34:18

### URNIETA, LASTERKARIAK

#### Gizonezkoak:

Gomez, Juan Luis	00:51:42
Costas, Mikel	00:54:36
Del Barrio, Joseba	00:55:14
Altuna, Jesus Mari	00:56:43

Del Sol, Jose Luis	00:59:03
Narbarte, Iñaki	01:01:02
Iturralde, Aitor	01:01:31
Garmendia, Julen	01:03:46
Romero, Jose Luis	01:04:00
Murciego, Asier	01:06:09
Dominguez, Gorka	01:06:56
Garmendia, Mikel	01:08:37
Campos, Enrique	01:10:39
Ayerza, Eñaut	01:11:27
Gomez, Daniel	01:12:45
Egaña, Oier	01:15:34
Paco, Ander	01:16:36
Lopez, Jonathan	01:16:14
Unanue, Joseba	01:20:41
Del Barrio, Jose Antonio	01:20:45

#### Emakumezkoak:

Villas, Begoña	01:19:27
Begiristain, Maite	01:22:06

### ROLLERSAK

#### Andoain:

Otaegi, Igor	00:29:48
Zuriarrain, Aitzol	00:29:58
Aginaga, Iñigo	00:32:20
Gomez, Albi	00:36:40
Montejo, Manuel	00:43:30
Echeverria, Manex	00:46:56
Prego, Martxel	00:48:25
Zabala, Bixente	00:48:56
Sanchez, Ines	00:52:21

#### Urnietako:

Etxebeste, Iñigo	00:37:10
Fagoaga, Maialen	00:48:05
Atxaga, Ana Isabel	00:49:03

\*Iturria: 15kmsansebastian.com

## Larruzko paleta finalean Urnietako bi talde ariko dira

Ezinezkoa zirudien arren, aurtengo Gipuzkoako txapelketako finalean Urnietako bi bikote arituko dira. Albiste pozgarria, zinez, Urnietako Kirol Elkartearentzat. Mikel Jauregi eta Beñat Txapartegi bikoteak Deban aurreko asteburuan lortutako garaipen handiari esker, finalean parez pare aski eza-gunak diren aurkariak izango dituzte: Aitor Argiñarena eta Xabier Garagorri.



## Ganbara saski taldea

#### SASKIBALOIA. Senior maila:

Ganbara 41-51 Elgoibar

#### Junior maila:

Ganbara 56-51 TAKE

#### Kadete maila:

Irun 45-47 Ganbara

#### Asteburuan, senior maila:

Lizeoa-Ganbara

Ostirala, 21. 20:00.

#### Junior maila:

Ordizia-Ganbara

Larunbata, 22. 12:30.

## Erregional Preferentea

#### FUTBOLA. 5. jardunaldia

Urnietako 0-1 Euskalduna

#### 6. jardunaldia, asteburuan:

Euskalduna-S.Tomas Lizeoa

Larunbata, 22. 15:30. Ubitarte.

Dunboa-Urnietako

Larunbata, 22. 16:00. Irun.

#### Sailkapena:

1. Euskalduna	13
2. Trintxerpe	10
3. S.Tomas Lizeoa	10
4. Añorga	9
9. Urnietako	7
16. Behobia	0

## Emakumezkoen Erregionala

#### FUTBOLA. 4. jardunaldia

Amara Berri 0-7 Urnietako

#### 5. jardunaldia, asteburuan:

Urnietako-Ostadar

Larunbata, 22. 18:30.

#### Sailkapena:

1. Intxaurdi	12
2. Touring	12
3. Urnietako	7
4. Ordizia	6

## Eskubaloia, senior maila

#### ESKUBALOIA. 2. jardunaldia:

Egia 32-21 Urnietako

Leizaran 31-31 Saieko

#### 3. jardunaldia, asteburuan:

Urnietako-Soraluze

Eibar-Leizaran. Igandea. 12:30.

#### Sailkapena:

1. Ordizia	4
2. Ereintza	4
3. Ormaiztegi	4
4. Leizaran	3
12. Urnietako	0

## Emakumezkoen eskubaloia

#### ESKUBALOIA. Senior neskek:

Egia 22-27 Urnietako

Leizaran Atsedean

#### 3. jardunaldia, asteburuan:

Leizaran-Legazpi

Larunbata, 22. 17:30.

Urnietako-Ibaizabal

Larunbata, 22.

#### Sailkapena:

1. Berando	4
2. Errotabarri	4
3. Urnietako	4
4. Egibide	2
7. Leizaran	2
8. Egia	2
13. Galdakao	0



Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

**Aiurri**  
BETERRI-NURINTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



**Aiurri eskuragarri:**

Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urrietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. **Webgunea:** www.aiurri.eus

**Zuzendaria:**

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus  
**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

**Diseinua:**

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus  
**Publizitatea:** Fernanda Irazu. publicitate@aiurri.eus

**Zorion agurrak, merkatu txikia:**

diseinua@aiurri.eus  
www.aiurri.eus  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.

**Kudeatzailea, banaketa arduraduna:**

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

**Banatzaleak:**

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnieta).  
**Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

# Agenda

URRIAREN 20TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

## Zinema

**Andoain**

- **Los siete magnificos:** Urriak 22: 19:30, 22:00. Urriak 23: 19:30. Urriak 24: 19:30, 22:00.
- **Zipi y Zape,** haurrentzat: Urriak 22. 17:00. Euskaraz. Urriak 23. 17:00.
- Datorren asteburuan: "Un monstruo vino a verme".
- Dokumentala: "Newen mapuche". 19:00. 3 euro. Azaroak 9, asteazkena.

**Urnieta**

- **Alvin y las ardillas:** Igandea, 23. 16:00, 18:30. Datorren asteburuan: **El Principito:** Igandea, 30. 16:00.

## Literatura

**Andoain, Bastero**

- Urt Zubiaurreren "Izenik gabeko lurrak". Idazlea bertan izango da solasaldian parte hartzeko. 19:00-20:00. Urriak 25, asteartea.

## Azoka

**Andoain**

- Makaldegiko etxola berria ipini behar dutela eta, azoka denbora batez Goikoplazara eramango dute. Urriaren 25etik aurrera, asteartero eta larunbatero.

## Oharra

**Urnieta**

- Igerilekuko erabiltzaileen gogobetetze maila ezagutzeko asmoz, inkesta bete-tzeko epea zabalik dago. Azken eguna. Urriak 25.

## Erakusketa

**Andoain, Bastero**

- **Luis Tolosaren arkitektura** Urriaren 29ra bitarte.

## Batzarrak

**Andoain**

- Aparteko batzarraldia, taksak eta zergak aztertzeko. 19:00. Udaletxea. Urriak 20, osteguna.

**Urnieta**

- **Urnieta Bizirik** ekimenak deituta. 18:00. San Juan plaza. Urriak 20, osteguna.
- **EH Bilgunea,** hauteskundeen balorazioa eta beste zenbait gai buruz hitz egiteko bilera irekia. 19:00. Lekaio. Urriak 20, osteguna.

## Antzerkia

**Andoain, Bastero**

- "Jokoz kanpo": Joseba Apaalaza, Asier Hormaza, Asier Sota. Euskaraz. 21:30. Urriak 21, ostirala.

**Urnieta, Sarobe**

- "Kixote, Santxoren zorabioa" Markeliñeren eskutik. 17:30. Sarobe. Azaroak 6, igandea.

## Diaporama

**Urnieta, Lekaio**

- **Slack line munduan zehar,** Xabier Amorrorturekin. 19:00. Doan. Urriak 26, asteazkena.

## Musika

**Andoain, Bastero**

- **The Young Fresh Fellows** Seattle hiriko taldea zuzenean. 22:30. Auditorioa. 12 euro. Azaroak 5, larunbata.

## Lehiaketa

**Andoain**

- **XX. Martin Ugalde Ipuin Lehiaketa,** sari banaketa ekitaldia. 18:30. Ekitaldi aretoa. Azaroak 10, osteguna.

## Jaialdiak

**Andoain, Bastero**

- "Hodei Olaizola lagundu" elkartasunezko jaialdia. Musika jaialdi bikaina Andoaingo eragile ezagunekin: Joseba eta Bakartxo dantza eskola, Urki, Zunba, Lorratzak, Klaap, Sevillana taldea, bertsolariak. Salgai: Ataria, Urrats. 11:00. 5 euro. Urriak 22, larunbata.
- "Herrien jaia, XX. edizioa" Triana eta Hogar Extremeñoren eskutik. 11:30 Gora Kaletxiki. 12:00 Alberto Agirre. 12:30 Gora Kaletxiki. 13:00 Aljarafe abesbatza. 13:30 Dantzaldia. 16:00 Zunba maratonia. 18:00 Trianaren emanaldia. 18:30 Zambra akademia. 19:00 DJ saioa. Urriak 22, larunbata.

## Haurrak

**Urnieta, Ludoteka**

- **Ipuin kontaketa marraztua:** "Bazen noizbait, nonbait, norbait, zerbait egiten. Eta bapatean..." Kontukantoi konpainiaren eskutik. 17:30. Urriak 27, osteguna.
- **Hurrengo saioa:** "Nire etxea zure etxea da", Maite Frankoren ipuin-kontaketa saioa. 17:30. Azaroak 10, osteguna.

## Farmaziak

**Eskualdea**

- Andoain: **Arzallus.** Urnieta: **Castilla.** Urbieta kalea, 7. Hernani. Urriak 22, 23.
- Andoain: **Diaz.** Nagusia, 19. Urnieta: **Etxebarria.** "Cuevas". Urriak 29, 30.
- Gaez: **Urrutia,** Hernani. Etxeberria 1. Florida auzoa. Urriak 22, 23, 29, 30.

## ZORION AGURRAK

**ZORIONAK**



Urriaren 19an **Eñatek** 11 urte bete ditu. Zorionak gurasoen eta Nahikariren partez. Muxu handi bat, maite zaitugu! Etxekoak.

URNIETA

**ZORIONAK**



**Maren** beste kandela bat izaltzeko prest? Dagoeneko zazpi dira! Ondo pasa eta primeran ospatu!! Muxu piloa pittin! Etxekoak.

ANDOAIN


**ZORIONAK**



**Maddi Nuño** Oiarzabalek 7 urte beteko ditu urriaren 23an. Ondo ospatu eta ederki pasa! Muxu handi bat maitia! Etxekoak.


ANDOAIN

**ZORIONAK**



**Erlantz** Ilaregi Ilaramendik bi urte beteko ditu urriaren 24an. Beti bezain alai jarrai ezazula. Aiton-amonak, izeba Ikerne, Ander. Etxekoak.

ANDOAIN




Zorionak **bikote!** 21 eta 14 urte. A ze bi mutil guapo! Jarraitu biak hain jator eta zintzo. Muxu luze eta potoloak etxekoan partez.

ANDOAIN



Urriaren 16an **Iraia** 7 urte bete zituen. Skatean zuk guri nola ibiltzen den erakusteko, prest gaituzu! Muxu handi bat.

URNIETA



**Ander** Amondarain Portillok urte bat bete du! Etxeko printzea da argazkian ikusten den moduan... Nik agintzen dut! **Patxi** Azkue Amondarainek 12 urte bete ditu! Pozik beti ta abesten... orain gainera *inglix pitin-glixes!* Txokolatzeko eta marrubizko muxuak biontzat! Laiene, Ibai, Imanol, Irune, Noa eta Alex.

**ZORION AGURRAK AIURRI** Erraza da, eta dohainik. Email: diseinua@aiurri.eus | Whatsapp: 619 163 537



## Eskualdean langabetuak kontratatze deialdia

Buruntzaldea Beterri eskualdean langabetuak kontratatze deialdi berria martxan jarri dute, Udal ezberdinek elkarlanean.

Lan hitzarmenak lanaldi erdirako edo osorako, Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean eta gutxienez hiru hilabeteko iraupenarekin izango dira. Kontraturiko pertsonak baldintza bete beharko dituzte:

- Abuztuaren 22a baino lehen eskualdean erroldaturik egotea.
- Lan-eskatzaile gisa izena emanda egotea Lanbide euskal enplegu zerbitzuan.

Hautaketa prozesua Lanbideren bidez egingo da.

Laguntza jaso nahi duten enpresek gizarte segurantzaren eta zergen betebeharrekin egunean egon beharko dute, eta eskualdeko udalekin zorrik ezin izango dute izan.

Eskaerak 2017ko martxoaren 31 baino lehen egin beharko dira, Andoaingo Udalen sustapen ekonomiko eta enplegu sailan.

**ARGIBIDEAK:**

**Andoain** 943 304 221 enplegua@andoain.eus

**Urnieta** 943 008 000

letxezarreta@urnieta.eus